

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko otsailak 22 • 93.zka. •

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA



■ Deba ibaia bideratzeko obrak

■ Txino dantza: usadio zaharra

■ Eskiaren arriskuak

■ Ortua, astialdirako alternatiba

Garantizaturiko interesa

%
25^{eko}
atxikipenik gabe

Abantaila

fiskalak

Aurrezpen Segurua

Zure

neurriko

aurrezpen

formulak

Aurrezpen Segurua


Interes garantizaturiko eskaintzen duten aurrezpen formulak, % 25eko atxikipenik gabe eta abantaila fiskalekin.

Aurrezpen Seguruaren hiru modalitateen artean zure beharrei ondoen egokitzen zaiena aukera dezakezu.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Ondare Segurua
Epe Segurua % 150
Ondare Bikoitza Aseguratua



Zer duzu esateko bariante bazterrean dauden ortuen inguruan?

Zigor Lasagabaster
(Ikaslea)

Afizio moduan ondo iruditzen zait ortu bat eukitzea. Baina hori bai txabolismoa zaindu egin beharko litzateke, itxura zaindu dezatela behintzat.



Kontxi Jesus
(Etxekoandrea)

Niri gaizki iruditzen zait herriaren inguruan dauden lurretan ortuak jartzea, herritik urrunago jarri beharko lituzkete baratzak. Begirako oso itxura txarra ematen du.



Anabel Borrego
(Ikaslea)

Afiziotzat ortua izatea ondo iruditzen zait, baina ondo zainduta egon beharko lirateke.



Iñaki Otero
(Ikaslea)

Nik ondo ikusten dut ortua izatea. Batzutan paisaia zatartzen dute baina hori ortua dutenen arazoa da. Nik behintzat ez nuke orturik jarriko.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria



ESKUTITZAK

Bukavu proiektuaren informazioa

Hiruatz, hirugarren mundu taldeak, maiatzean ekin genion Afrikako Bukavu hirian proiektu berri bati. Hango informazioa jaso bezain laster bertan egin diren lanei buruzko informazioaren berri ematera gatoz:

- 3 eskola-gela eraiki dira eta berehala jarri dira ikastaroak martxan. Joan den azaroaren 20an hasi ziren 300 ikasleri bertan klaseak ematen. Inaugurazio solemnea urtarrilaren 2an egiteko ziren.

- Lurra erostea eta eskola eraikitzea 15.227 dolar izan dira (1.904.000 pza). Faktura guztien orijinalak dauzkagu.

- Errefuxiatu guneko gizon, emakume eta gazteek beren kabuz berdindu dituzte lurrak, ura eta harriak ekarri eta abar.

- Berehala hasi ziren lurra prestatzen eta falta diren eskola-gelak egiteko oinarritzko materialak jartzen. Egun hauetarako seguruenik nahiko aurreratuta egongo dira.

Bitartean, azken 2 hilabeteetan kolaboratzaileen laguntza asko igo da. Dagoeneko 6 miliotik gora daude. Kontuan izan behar da Aretxabaletako Udalak 2.200.000 pezeta eman dituela eta Arrasatekoak 700.000 pezeta, Arrasateko HARREMAN taldearen eskariz, hauek ere proiektuan parte hartu dute eta.


Hirugarren Mundu Taldea

Zuzenketa

Aurreko alean industrialdearen inguruko erreportaiari, industrialdean 74 enpresa zeudela eta 700 lanpostu sortu zirela jarri genuen. Datu hau okerra da, izan ere, 74 enpresa hoietan 700 lanpostu daude baina Aretxabaletako industrialdean sortu diren 34 enpresa berrietatik sortu diren lanpostuak 385 inguru dira.



Deba ibaia bideratzeko obrak hasi dira



Errotabarritik hasi eta Kiroletxerainoko tartean burutuko dira Deba ibaia uholdeetatik babesteko lanak

Deba ibaia uholdeetatik babesteko lanei hasiera ofiziala eman zitzairen otsailaren 12an. Ekitaldian, Jose Antonio Matu-rana Eusko Jaurlaritzako garaio eta herri lanetarako sailburua, Pedro Jauregi ur ardura-duna eta gaian adituak diren beste hainbat lagun egon ziren. Aretxabaletako Udaletik Koldo Azkoitia hirigintzako ardura-duna eta Juan Antonio Rodrig-gez alkatea egon ziren.

Deba ibaiaren bideratze la-nak, Errotabarritik hasi eta kiroletxearen arteko zatian au-rretera eramango dira, zati horre-tan ibaiak uholdeak izateko arriskua erakusten du eta.

Obrak aurrera eraman behar dituen enpresa Dragados da. Obren kostua barrez, 156.853.998 milioitakoa da eta honen finantzaketa, Eusko Jaurlaritzak %75a eta beste %25a Diputazioak eta Aretxa-baletako udalak ordainduko dute.

Lanei hasiera eman aurretik ibaiaren inguruko garbiketa lanak burutu ziren. Horre-tarako, ibaiaren aldamenetan zeuden zuhaitzak moztu ziren. Bideratzeko obrak barrez, orain hasi eta 8 hilabete inguru luza-tuko dira. Hori horrela izanik, urte bukaera baino lehen lanok bukatuta egon beharko lirateke.

Leizarra musika eskolako batzar orokorra

Leizarra musika eskolak otsailaren 9an egin zuen urteko batzar orokorra. Besteak beste, 1995eko ekonomi txostena, 94-95. ikasturteko memoria, 96ko gestio-plana eta batzorde zuzendaritzaren berriztapenaren inguruko xehetasunak jorratu zituzten.

Datorren urtera begira esaterako, kuota igotzeaz gain, zuzendaria ere aldatuko da, Mariatxen Urkia izango da datorren ikasturte aurrera zuzen-dari barria. Batzorde aldaketari dago-kionez barriz, Jose Luis Filar-mendiren eta Jose Antonio Jauregiren orde-z, Galo Sanchez eta Mikel Arenaza sartuko dira.

Ia 2000 zuhaitz landatuko dira Urkulun

Datozen otsailaren 23 eta 26an ia 2.000 zuhaitz landatuko dira Urkuluko urtegiaren inguruetan. Horretarako bailarako ikastoletako haurrak goizean goiz joango dira Urkulura autobusez eta eguerdi alderako landatuta izango dituzte zuhaitzok.


Ekimen hau Kutxa Fundazioak antolatu du, Foru Aldundiaren laguntzarekin. Kutxak, Gaztetxo-en Elkarte sortu zuela 25 urte betetzen dira aurten eta zuhaitzaren eguna ere laster ospatuko dela kontutan izan dute. Dagoeneko zuhaitzak sartuko diren zuloak eginik daude eta hoietan sei zuhaitz mota desberdin landatuko dira, hoi-en artean, haritza, haltza, lizarra, zumarra, astigarra eta urkia.

AMETS TABERNA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

TXAKOLI

a - Pintxoak
b - Kazuelak
e - Pulpo espezialitatea
r
n Andra Mari Auzunea
Tfnoa: 79 02 25
a ARETXABAleta



HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57



23 gurasok eta irakaslek beste hainbat lagunen partaidetzarekin landu dute antzerkia

Almeneko irakasle eta gurasoek antzerkiaren bitartez heziketa landu gura izan dute

Joan den ikasturtetik hona Almeneko 23 guraso eta irakaslek, beste hainbat lagunengandik partaidetzarekin antzerki bat landu dute. Joan den otsailaren 16 eta 17an antzeztu zuten Almeneko gurasoen aurrean eta une polita pasatu zuten bertan bildutakoek.

Antzerkia, Anjel Lertxundik sortutakoa da eta bost sketchetan banatzen da. Edozein etxetan eta eskola giroan egunero sortzen diren egoerak jasotzen ditu, komunikazio falta, ahaleginerako motibaziorik eza... Gai hauen inguruan guraso/irakasle eta seme-alaba/ikasleak sensibilizatu gura dira, heziketa lana eraginko-

rragoa izan dadin. Izan ere guzti honen helburua guraso/irakasleen eta seme-alaba/ikasleen arteko harreman eza ekiditzeko kontutan izan behar diren pausuak isladatzea da.

Antzerkia, sensibilizazio lan honen lehen urratsa besterik ez da. Garrantzitsuena antzerkian garatzen diren gai hoiek gerora sakonago aztertzea da. Hori dela eta, datorren otsailaren 26 eta 27an, antzerkian ikusitakoaren inguruko FORUMa izango dute Almeneko gurasoek. 26an 7. mailatik beherako ikasleen gurasoentzat izango da eta 27an 7. mailatik gorako gurasoentzat.

Sagardotegira urteera

Emakumearen eguna ospatzen da martxoaren 8an. Hori dela eta, Tril emakume taldeak Ataungo Urbitarte sagardotegira urteera antolatu du, Ilunkaran izango da urteera baina afal aurretik sagardoa zelan egiten den ikusi ahal izango da. Izena emateko Loramendiko lokalean egin behar da.

Loramendi Elkarteak mintegia

Loramendi Elkarteak datorren otsailaren 24an mintegia egingo du aurrerantzean jarraitu behar duen bidea eta beste gai batzuk jorrazteko asmoz. Azaroaren 18an egin zuen aurreneko mintegia. Lehenengo bilera hartan ateratakoa aztertuko da otsailaren 24an egingo den mintegian. Azken hau Loramendi Elkartearen lokalean egingo da arratsaldeko 4retan ekin eta 7rak artean.



MAPFRE

Aseguroak

Errekaabarren, 3

Tfnoa: 77 11 76

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4

Tfnoa: 79 98 74

ARETXABALETA

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Izozkitekari-Gozotegia
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

LEIBAR
ARRAINDEGIA

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



Batzokiaren inaugurazioa

Otsailaren 11n burutu zen batzokiko inaugurazio ekitaldia. Bertan, Xabier Arzalluz, Joseba Egibar, Jose Juan Gonzalez de Txabarri eta Aretxabaletako EAJko hainbat kide egon ziren. Inaugurazioa Arzalluzek egin zuen eta Karmelo Azkoitiak ekitaldi politikoa berba egin zuen.

Edurra heldu da

Urteko lehenengo edur malutak heldu dira. Martizen goizean ekin eta gelditu barik egin du edurra Euskal Herri osoan zehar. Inguruko bazterrak txuri-txuri ikusteko aukera izan dugu. Batzuk pozik hartuko zuten edurra baina egia esan eguneko martxa guztiz aldatzera heldu daiteke eguraldi hau. Horrelakoetan, kontuz ibiltzea eta kotxea ez hartzea gomendatzen da derrigorra ez bada behintzat.

Aretxagazetako batzar orokorra

Joan den otsailaren 16an Aretxagazetako batzar orokorra burutu zen. Batzarrean, besteak beste, 1995eko balantzea, aurrekontuak, memoria eta 1996ko asmoen barri azaldu zuten Iosu Urkia zuzendariak eta Marta Madinabeitiak Aretxagazetako diruzainak. 1995eko balantzea egiterakoan, positiboki baloratu zuten iazko urtea. Bestalde, aurtengo urtera begira, kolaboratzaile barriekin harreman sendoa mantentzeko nahia ere azaldu zuten. Berrikuntzen artean, datorren urtera begira esaterako, Aretxagazeta aldizkariaren azala koloretan ateratzeko asmoa zutela ere aurreratu zuten.

Guzti honez gain batzordekide barriak ere aurkeztu ziren. Marta Madinabeitia eta Xabin Arriola izan dira 2 urte batzordean egon ondoren atera direnak. Sartu diren batzordekide barriak barriz, Ines Gartzia, Naiara Arrese, Ana Eriz, Unai Loidi eta Arantxa Eguren dira.

Tanzaniari buruzko argazki erakusketa

Tanzaniako argazki erakusketa ikusgai dago udaletxean Patxi Sanchez Dehesaren eskutik. Erakusketa joan den otsailaren 20 zabaldu zen eta martxoaren 1a arte egongo da. Ordutegia arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartekoa da.

Alternatiba demokratikoaren aurkezpena

Otsailaren 9an HBk alternatiba demokratikoa zertan den azaldu zuen udaletxeko ganbaran. Alternatiba demokratiko hau "Kas alternatibaren" berrikuntza da. Aurkezpenean bildu zirenek HBko kidearen azalpenak entzun eta ETAK bidalitako bideoa ikusi ahal izan zuten.

EA alderdikoak izan ziren Aretxagazetan

Otsailaren 16an, Begoña Lasagabaster, EAKo Gipuzkoako lehen zerrenda burua, Jon Goikoetxea, Gipuzkoako batzar orokorreko batzarkidea eta EAKo beste kide batzuk izan ziren gure herria bisitatzen, horien artean Aretxagazetatik ere pasatu ziren.

Atxabaltarra lan istripuan hil

Dionisio B. 38 urtetako atxabaltarra Gasteizen eraikuntza lanetan ari zela 5. pisutik jausi eta hil egin zen. Erorketaren arrazoiak ez dira ezagutzen baina 15 metrotako altueratik behera jausi zen.



Ezkontu
TABERNA
Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 00 00



URBALTZ
TABERNA
Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

ARGAZKI
Urkiola
Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

DON
Pelikularik
hoberenak
Lezama Merkatal zentrua
ARETXABALETA
BIDEO




AZKENA
TABERNA
Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



GEHIENGO EZEZAGUN ETA BITXIA

Animalia hitza entzutean, gure buruen barnean gordeta dauden eredu gutxi batzuk baino ez ditugu irudikatzen, hau da, behia, txakurra, txoriak, arrainak, eta besteren bat. Baina munduan zehar gure "kanon"-etatik kanpo gelditzen diren animalia ugari existitzen da. Hona hemen animalia ezezagun horien adibide oso mugatua, izan ere ez baitira salbuespen, gehiengo baizik.



Irudiko animalia berezien gaineko argibideak: *Cydonema* esponja, *Metridium* eta *Velamen* Knidarioak, *Branchionus* eta *Collotheca* errotiferoak, *Cephalobaena* priapulidoa, *Nanalaricus* loriziferoa, *Polyphemus* kladozeroa, *Mesopliphora* akaroa, *Amphitrite* poliketo terebelidoa eta *Hallucigenia* jadanik fosila.

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

Mitartegarai Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABAleta

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

IBARRA

ESTANKOAK

Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3

☎ 79 29 26

ARETXABAleta

Mikel Arroiabe



Txino dantza, usadio zaharra

Atxabaltarron artean aspalditik datorren ohitura da Txino dantza. Aratuste domekan eguerdiko ordu batetan plazatik urtetzen du eta Durana eta Mitarte kaleak zeharkatu ondoren, barriri ere, plazan izaten du amaiera. Ikuskizun handia sortzen du herri-tarron artean, baita kanpo-tarren artean ere.

Antigualetik datorren dantza da eta bere jatorriak eritzi desberdinen iturri izaten jarraitzen du. Batzuren ustetan aintzina-ko ikazkinak menditik jeisten zirenean jaio zen usadioa eta honen lekuko lirake, dantzatzeko jazen den linozko soineko

luzea eta aurpegi-mutur-rrak beltzez pintatzeko ohitura. Beste batzuk barez, txino dantza zerriekin lotzen dute; txino zerri apoari deitzen zitziolako aspaldi baten gure bailaran.

Dantzaren aldaketak

Zenbait dokumentutan agertzen denez, 1934. urtera arte Santa Ageda mutilek dantza egiten zuten. Gero berrogei bat urtez egon zen desagertua, 1976. urtean Lora-mendi dantza taldeak berreskuratu zuen arte. Antza danez, domekan beharrean aratuste mar-

tizenean dantzaten zen garai batean eta orain ez moduan erdaraz abesten zen. Honela zioen kantua:

*Txin, txin, txin, txin,
las peras están berdes,
txin, txin, txin, txin,
ya se madurarán.*

*Txiribito y su mujer,
empezaron a comer,
Txiribito se enfado
y la cazuela le tiró.*


Bestalde, dantzarien mugimenduak direla eta, lizuntzat jo izan da Txino dantza, parekoari soineko jasotzea, bular aldea ikutu eta besarkatzea edota gonazpiak erakusten

baitira ikuskizunean. Honela, bi hiladatan parez-parez jarrita zeharkatzen dute kalea.

Edozelan be, jazkera da dantza honen ezaugarri berezietarikoa, linozko soinekoa, galtzerdi eta zapata desberdinak eta txapel arraroak.

Gaur egun barrez, euskeraz kantatzen da eta hona hemen kantua:

*Txin, txin, txin, txin,
mahatsa heldu gabe dago
Txin, txin, txin, txin,
baina helduko da.
Txiribito ta andrea
joan ziren jatera
Txiribito haserretu ta
bota zuen lapiko.*



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

Astialdi aktiborako ortuak; alternatiba sanoa

**GERO ETA GEHIAGO DIRA ORTU LANEAN
ASTIALDIA BETETZEN DUTEN ATXABALTARRAK**

Astialdi aktiborako ortuen ugalketa etengabekoa izan da azken urteetan. Atxabaltarrok ohi-tuak gaude herri barnean, ibai ertzetan, errepide alboetan eta inguruko zelai maldetan ortuak ikustera. Askotan inguruetakoa paisaia tristetzen duten txabolismo anarkiko horiek, beste askotan aldiz, ortu txukun eta garbiak. Dena dela, guztiak daukate ezau-garri amankomuna, bertako ortuzainen astialdia ganoraz eta modu onean betetzea.

Astialediaz gozatzeko, edozein adin eta kondizio da egokia, hala ere, gure herrian ortulanean beraien denbora askea betetzen dutenen multzo handi bat jubilatu edo pentsiodunena da. Jose Maqueda, 62 urtetako jubilatua, 26 urte daramatza gure artean, hauetatik 20 eman ditu Apotzarako bidean duen ortua gobernatzeko. *“20 urte daramatzat ortu lanetan, honek zoriontsu egiten nau eta”*. Josek lurra Apo-

“20 urte daramatzat ortu lanetan, honek zoriontsu egiten nau”



Ortuzainen astialdia betetzen dute ortuek

tzaetxeberri inguruko baserritar bati alokatu zion eta ordutik, *“lurra landu eta jasotakoa etxerako izaten da, sobran egon ezkerro lagun eta familiakoen artean banatzen dut”*.

Azken egunetan azaldu den informazioarekin ez dator bat *“gaizki iruditzen zait bariante alboetako ortuak garbitzea, behintzat bertako ortuzainei lur sail bat eman beharko zitzaie”*.

Interes ekonomikoa eta astialdia

Felipe Bengoa atxabaltarra,

duela 7 urte hasi zen ortua lantzen, *“etxerako barazki freskuak izateko eta ortu lanetan entretentzeko jarri nuen”*. Felipek bere ortuan denetatik lantzen du; lekak, azenarioak, erremolatxa, patata, berakata, kipula, porrua, tomatea eta letxuga. Guztia beraien kontsumorako lantzen dute Felipek eta bere emazteak. Beraientzat inguruko ortuzainen artean nagusitzen den interesa, astialdia egoki aprobetxatzea da eta ez interes ekonomikoa.

Ignazio Azkoitia, 77 urteko atxabaltarra, ere antzera pen-

“Ortuan bizitza guztia daramat, afizio handia daukadalako, gainera etxerako produktu ederrak jasotzen ditut”

tsatzen du, *“ortuan bizitza guztia daramat, afizio handia daukadalako, gainera etxerako produktu ederrak jasotzen ditut”*.

Guztientzat, ortuko lana beraien bizitzako atal handia da, gustora ibiltzen dira lan horretan. Ez dute dirurik irabazten, interes ekonomikoa baztertuz, zoriona handia izaten da jasotako barazkiak mahai gainean ikustean.

Tabernan baino hobe ortuan

Ignazio Azkoitia Copreci eta bera bizi den baserriaren artean aritzen da egunero bi edo hiru orduan, *“ortua ganoraz eramateko, kurioso eukitzeko sartu beharreko orduak dira horiek”*, berak tabernan edo jokuan egotea baino nahiago du ortua, *“afizio sanoa da hau”*.

“Afizio sanoa da hau”

Jose Maquedak ere antzeko zerbait esaten zigun, *“denbora-pasa ona da hau, tabernan egotea baino egokiagoa, gainera jubilatu nintzenetik denbora daukat tabernara joateko, pasiuan ibiltzeko eta ortura etortzeko”*. Josek udan 4 edo 5 ordu ematen ditu ortuan; *“neguan aldiz gutxi sartzen ditut”*.

Ignaziok neguan baba baltzak, berakatzak, kipula, porrua, eskarola eta sarbak lantzen ditu.

Felipe Bengoak ere ortuan



*Askotan inguruko paisaia tristetzen dute txabolismo anarkikoek. Beste batzutan ortu txukun eta garbiak dira.
Argazkia: Galartzarako bidean dauden ortuak*

aritzea oso gogoko duela aipatzen zigun, *“ia egunero joaten naiz ortura, udan neguan baino sarriago, lan handiena udan izaten da eta”*.


Udaletxeak zer dio?

Aretxabaletan ortu asko daude, batzuk alokatutako lurretan, beste asko berriz, norberak bere lurretan landutakoak. Ibai ertzetan ugariak dira eta bide alboetan ere. Gehienak ez dute inolako erregelamendurik eta asko udaletxe eta Diputazioaren erabakien zai egoten dira. Edozein lur sail ona da bertan lanean aritzeko eta kasu askotan ez dira konturatzen eragiten dituzten kalteak zer nolakoak diren. Aretxabaletan kutsadura paisajistiko nabarmena Mugarrin, bariante alboan ikusten dugu. Deba ibaia eta bariante artean dauden ortuak, eta txabolak ez dute inolako araudirik. Ortu hauek ilegalak dira nonbait, bertan daudenak aldiz, lurra lantzen jarraitzeko asmoa azaldu dute, Diputazioak bertatik bota arte.

Udala aurreko legealdian ortuzain hauen arazoari irtenbide bat emateko prest azaldu zen. Jose Mari Segovia udaletxeko hiritzinta arduradunak esaten zigunez, *“industrialdea eta bariante artean, Basabe inguruan dauden lurak astialdi aktiborako ortu bihurtu nahi genituen, dena dela ordutik aurrera ez da gai horretaz gehiago hitzegin”*.

Ona izango litzateke udaletxeak lur sail egoki batzuen erosketa egin eta etengabe gehitzen ari diren ortuei irteera bat ematea.

Hego Euskal Herritik kanpo, partzela txikiz osatutako sailen tradizioa handia da. Mini partzela hauek azpiegitura sendoa izaten dute; ur hornidura egokia, bertara heltzeko bide erosoak, instalakuntza amankomunak. Bidezkoa litzateke Aretxabaletan ere Udala ortuzainekin batera lanean hasiko balitz, ortua afiziotzat duten gizon eta emakumeen onerako.

 **Gorka Etxabe**

Aratusteak ⁹⁶



1go saria



2. saria



3. saria



4. saria

Aratusteak pasatu dira. Aurten ere, koadrilen kalejirek ez dute giro makala sortu. Egurdia ere ondo portatu zen, zortea lagun izan dugu, izan ere, hurrengo egunetako egurdia ikusita gero... ezingo gara kexatu.

Altsasuko momotxorroak ere hemen izan genituen, arran hots eta giro bikaina sortu zuten. Beraiek egindakoa zen mo-zorroa, ez zuten lan makala izan.

Zapa mobilak, magoo's cirila eta **Arre sei** Citroen eta Renault eskuderiako kotxeek raly-a korritu zuten. Zarata atera zuten behintzat. Azkenean, Arre sei kotxeak irabazi zuen raly-a. Dana dala, kotxe hoiekin ez ziren urrun helduko.

Inersokoak ere helduko ete ziren mediterraneo aldera? Atzetik zihoana behintzat ez zen oraindik helduko.

Aratusteak

Gaztetxoenek ere imaginazioa landu eta prestakuntzak egin zituzten egun honetarako.

Irabazleak, batzuk hain gaztetxoak ez baziren ere ipotxak izan genituen.

A zelako **ipotx koadrila!**

4. saririk ere egon zen, **eskale gaztetxo batzuk** izan ziren sari hori eskuratu zutenak. Eskalez beteta egon zen herria domekan.



1go saria



2. saria

Txikienetan, Lantzeko ihauterietako mozorrodun gazte hauek bigarren saria eskuratu zuten.

Villa Canterbury-ko neskek goiz osoa kantatzen pasatu zuten. Ondo merezitakoa izan zuten 3. saria.



3. saria



Atxabaltan ez dago gu baino hoberik, ligetan eta edaten ez dugu parerik. Inork ez du esango zozuak garenik "manbua" gura ezkeror etorri atzetik.

GORA TXISKOLA,
GORA TXIKOLARIAK
GORA TXIKOLA
TXISKOLA AURRERA
GORA TXIKOLA
GORA TXISKOLARIAK
TXISKOLA BETI
AURRERA!

ARATZ, Aretxabaletako atzeratuen aldeko elkarteak, zapatuan eman zien aratusteei hasiera. Ekintza berezia antolatatu zuten, Xabier Lazpiurri, txirringua utzi duelako omenaldia egin zioten eta. Horretarako, Euskadi taldeko txirringulari batzuk hemen izan genituen, hoiien artean, Xabier Palacin, Erkaitz Elkoroiribe, Alvaro Gonzalez de Galdeano eta Roberto Laiseka. Euskadi taldeko lehendakaria ere hemen izan zen, Migel Madariaga eta baita zuzendaria ere, Jose Luis Laka. Lazpiurrek, Elkoroiribek, Lakak eta Gonzalez de Galdeanok pregoia irakurri ondoren, Lurdes Etxebarriak lore erramua eman zion Xabier Lazpiurri.



Mozorro originalak asmatzen atxabaltarrok badugu abileziarik. Begiratu argazkiko hauei bestela, ze mozorro ete da hori... Ura behintzat edan beharko zuten bateon batzuk mozorrotu baino lehen.

Santa Ageda mutilek ere egin dute aurtengoa, herritarren aurrean dotore dantzatu dute. Baina jaurti dituzten etxaflero horiek!... zarata haundi samarra ateratzen zuten. Kepa Manteka aurten Santa Ageda mutil izan behar zuena ere gogoan izan zuten eta dantza saio guztietan bere oroimenez dantza bat gorde zuten.



Horrela, lurrean formal-formal jarrita harrapatu genituen umetxo hoiek kalean, guapo guapo daude gero... Eta beste japonesa hori ere guapa asko jarri zen argazkia ateratzeko, pose eta guzti gainera.



• Josu Pereda •

“Nekazaritza biologikoa, lurra lantzeko beste modu bat da”

Josu Pereda arrasa-tearrak Garagartzan eukitako ortu biologikoan makina bat ordu sartu izan ditu. Berea, afizioaz gain, lana ere bazen. Josurekin bere esperientziaz aritu ginen.



- Josu nola definituko zenuke nekazaritza biologikoa?

- Lurraren emankortasuna eta ingurugiroaren oreka mantenduz, kalitate goreneko elikagaiak lortzeko erabili beharreko nekazaritza mota da.

- Zeintzuk dira nekazaritza biologikoaren helburuak?

- Helburu asko ditu, lurra zaindu eta ez usteltzea, epe luzerako lurraren emankortasuna ziurtatzea. Nekazal teknika kutsagarriak ere, baztertu egiten ditugu.

Nekazal sistemako eta bere inguruetakoa ugaritasun genetikoa mantendu eta baso animalia eta landareen bizitokia babestu,...

- Nekazaritza biologikoan aritzeko, zeintzuk dira betebeharreko baldintzak?

- Nekazaritza biologikoa lantzeko betebeharreko bal-



dintza bakarra dago, ezin da ongari kimikorik erabili, ez eta kimikoki eta sintesi baten bidez lortutako pestizida edo antzekorik ere.

- Zeintzuk dira nekazaritza biologikoaren oinarriak?

- Oso garrantzitsua da lurraren eta kultiboen txandaketa egokia egitea, rotazioa ondo egitea. Ongarria botatzerako orduan ere oso garrantzitsua da, ongarriketa organikoa egitea (ximaur edo zatx helduaz, konpostaz, ondakin begetalez, e.a.). Oinarri oinarrikoa ere bada lurra lantzeko era.


- Zer dira produktu biologikoak?

- Orain arte komentatu ditudan teknika ez erasokorrak erabiliz lortzen diren produktuak.

Ekoizpen hauek produktu biologiko, organiko, biodinamiko edo ekologiko bezala ezagutzen ditugu.

- Bukatzeko, zeintzuk dira produktu biologikoen ezaugarriak?

- Produktu biologikoa kalitate handikoa izaten da, sana. Elikagaien gustoa eta zaporea nabariagoa da eta gainera kontserbatzeko epe luzeagoa dute.

 **Gorka Etxabe**

BEIRALAN

KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

JOSU HARATEGIA
Urdaitegia-Gozotegia
Kroasantegia
“Janari prestatuak”
Mitarte, 1 ☎ 77 03 08
ARETXABALETA


FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56



Luis Orruño: "Eskiatzerakoan taldean egitea eta hau homogeneoa izatea garrantzitsua da"

"Eskiatzea beste kirol batzuk baino arriskuatsuagoztat jo daiteke" dio Luis Orruñok. Izan ere, bi tablen gainean irristatzean abiadura handia hartzen da eta erorketak gertatzea nahi ta nahiezkoa da. Erorketa gehienak eskiatzen hasteko orduan gertatzen badira ere, hauek ez dira istripu larrienak izaten. "Eskiatzen hasi berri den pertsona batek askotan jausita ere istripu txikiak izaten dira; abiadura ez baita hain handia izaten". Baina behin tablei konfiantza hartzen zaienean orduan gertatzen dira lesio handienak, abiadura handia hartzen da eta.

Horregatik eskiatzera doanak eskiaren arriskuaz jabetu behar du, beti ere, hauek aurrez ekiditzeko ahal diren neurriak hartuz. Istripuak aurrikusteko ondo erreparatu behar zaio inguruneari, bai ekipoari eta baita eskizaleen ahalmenari berari ere.


Beste edozein kirolek moduan, eskiak ere, prestakuntza fisiko egokia, elikadura egokia eta aurrez gorputza ariketa batzuekin berotzea eskatzen du. Egun osoko martxa eta nekea hobeto jasaten lagunduko dute eta istripu larriak ekiditzeko ere bere garrantzia dute.

Baina zeintzuk dira eskian gertatzen diren istripuak?

Orain dela urte batzuk arte, orkatilak jasaten zituen eskizaleen artean lesio gehienak. Orain barrez, eskiatzeko botak aldatu egin dira, ia belaunetarainokoak dira eta hori dela eta oso zaila da orkatilak lesiorik jasatea, ondo lotuta gelditzen dira eta.

Belauneko lesioak izaten dira gehien gertatzen direnak, bai belauna okertu, ligamentuak gurutzatu,

Luis Orruño medikua izateaz gain eskizalea ere badugu. 15 urte zituenetik ibili da eski gainetan. Urte luze hauetan eskia kirol gozagarria bezain arriskutua denaz jabetzeko aukera izan du. Eskiak dituen arriskuez hain zuzen ere berba egin digu Luisek, bai bere esperientziatik eta baita mediku ikuspuntutik begiratuta ere.



meniskoa apurtu edo gehiegizko pisuagatik. "*Belauna aurrera eta atzera mugitzen den artikulazioa da eta erortzerakoan rotazioa indartzen da eta hor gertatzen dira lesioak*".

Hatzamar lodia apurtzea ere ohikoa izaten da. Jausi eta bas-toiaz lurrera erortzean hatzamar lodian luxazioa sarri gertatu egi da.

Istripua zer nolakoa izan den araberara, bestelako traumatismoak ere izan daitezke, sorbaldakoak, buruko traumatismoak, e.a. baina azken hauek ez dira horren ohikoak. Istripu guzti hauez gain ezin aipatu barik utzi erortzean hartzen diren kolpeak.

Eskiatzerakoan istripuak ekiditzea zaila da, hala ere, aholku batzuk kontutan hartzekoak dira eta horren barri eman digu Luisek.

Eskiatzera joaterakoan, federatuta egotea edo eta bestela eski-estazioan bertan seguru bat ateratzea oso garrantzitsua da. Honez gain, beti taldean ibiltzea

komeni da, zeozer gertatuta ere laguntza ondoan izateko. Eta taldea homogeneoa bada askoz ere hobeto. "Askotan aldamenekoa jarraitzeagatik eta norberaren ahalmena txikiagoa denean gertatzen dira istripuak". Norberak bere ahalmenak eta mugak zeintzuk diren ondo ezagutu behar ditu eta txorakeriarik egin barik ibili.

Eguzkiarekin ere kontuz ibili beharra dago. Betaurrekoak erabiltzea beharrezkoa da. Erredurak ere askotan gertatzen dira ukendu babesgarriak ez erabiltzeagatik. Kasu honetan, protekzio handiko kremak erabili beharra dago.



BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN


Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

BQ Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



Zikloturistak martxarako gertu dira oster

1984. urtean, orain dela 12 urte sortu zen Aretxabaletako zikloturisten taldea. Orduetik urtero urtero udaberrian ekin eta udazkenerarte domekero domekero antolatu izan dituzte urteerak.

Aurten ere horrela egingo dute; martxoaren lehenengo domekan eman go diete aurtengo ibilaldiei hasiera, domekero txirrinduari heldu eta ibilaldi desberdin bati ekiteko.

Aurtengo ibilaldiei dagokienez, hasiera batean, Km. gutxiko ibilaldiak egiten hasiko dira, poliki-poliki luzeagoi ekiteko.

Datorren otsailaren 3an egingo dute

ibilaldirik motzena, 36 Kmtakoa; Dorletara joango dira eta urtero moduan lore eskaintza egingo diote Dorletako Ama Birginari; txirrinduan bere laguntza eman diezaien. Baina ibilaldi luzeak ere badituzte egitarauan, Salinas de Añanakoia esaterako, 132 Km.takoa da hau.

Honez gain, ibilaldi berezirik egiteko asmorik ere badute, agian iazko moduan Tourmaletara edo eta Frantzia aldera joateari ezin zaio ezetz eman.

Oraindik ere norbaitek zikloturisten lizentzia atera gura badu, aldan eta azkarren zikloturisten lokaletik pasa beharko du, Zاراia kaletik.

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolako aurkezpena

Datorren martxoaren 3an Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak 1996. urteko denboraldirako taldeen aurkezpena egingo du. Bertan taldeetako partaideen izenak jakitera emango dira, 1go eta 2.en urteko jubenilak, 1go eta 2.en urteko kadeteak eta infantilak. Honez gain datorren denboraldirako babesleak zeintzuk izango diren ere aurkeztuko da. Aurkezpenari 10,30etan hasiera emango zaio Leintz Gatzagako Dorletako santutegian Ama Birginari egingo zaion eskaintzaz. Ondoren, 11,30etan, 1996. urteko denboraldirako taldeetako partaideen eta babesleen aurkezpena izango da Venta-Fria jatetxean. Eta bukatzeko gerturatuko diren guztientzat luncha.

ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43



ARAITZ GARAI
(13 urte)
Igo saria

Loramendi
literatur
lehiaketan, 7 eta
8. mailako neska-
mutilen artean
aurkeztutako
poesien artean
Araitz Garairen
poesiak Igo saria
eskuratu zuen eta
Jone Lezetaren
poesiak barrez 2.
saria. Hona
hemen poesiok.



JONE LEZETA
(13 urte)
2. saria

IRIARTE

**Umeen
denda**



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

MEMESA S.L.*Industriaren alde*

Santa Kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

*Sebastian de la Fuente***Elena****AUTOZERBITZUA**

Murubide z/g ☎ 79 91 76
ARETXABALETA

SAGASTA**ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

**OLENTZERO, GAUR GAUEAN,
ZER EKARRIKO?**

Zirri, zirri zirrian
sagutxo zuloan,
muturtxo kanpoan
katua da zelatan.
Gazta da sutondoan,
amona bere ondoan;
kontuak esatean,
haur danak bere aurrean.
Zirri, zirri, olentzero
ez dago batez ero,
ondo portatu ezker
oparia du gero.
Amona jaiki da ta
banatu die gazta
ohera dihoaz ta
atera gabe zarata.
Zirri, zirri sagutxo
ateraz muturtxo
gainean katutxo,
jan da gero antxo.
Sagutxo ihes egin
ibili oso arin
egin zazu ahalegin
indartsu baina ezin.
Zirri, zirri atetik
olentzero harriturik
bi txikiak kolpetik
daude harrapaturik.
Amona sartutzean
goizean sukaldean
hankaz gora ikustean,
sartu zaigu trantzean.
Zirri, zirri denentzako
olentzerok zer ekarriko?
ikatz gaiztoentzako
ta oparia formalentzako.

**ELKAR ULERTZEA
NAHI EZ DUGULAKO**

Elkar ulertzea nahi ez dugulako,
herri honetako lasaitasuna
deuseztu behar badugu...
Elkar ulertzea nahi ez dugulako,
herri eder hau
fusilez bete behar badugu...
Elkar ulertzea nahi ez dugulako,
gure lagunak
hiltzen ikustera ohitu behar badugu...
Elkar ulertzea nahi ez dugulako,
adiskideak
alde egiten ikusi behar baditugu...
Elkar ulertzea nahi ez dugulako,
sendia
banatu behar badigute...
Elkar ulertzea nahi ez dugulako,
gure gorputza
hasetuko duen ogi zatia
ukatu behar badigute...
Elkar ulertzea nahi ez dugulako...
herriko parkea
eztanda tokia bihurtu behar badigute...
Pertsona izateari
uko egingo diogu.

**EZ DA
POSIBLE!**

**EZIN
LITEKE!**



1906. urtean Santa Ageda mutilek bainuetxen ateratako argazkian.

Behean ezkerretik eskumara: (Ezezaguna), Julian Olabe, Bittor Antxia, Toribio Elkorro, Jose Otxoa (Gerra) txistularia, Laureano Garai.

Goian ezkerretik eskumara: Seberiano Altube, Jesus Galdos, Juan Jose Garciaetxabe, Jose Zubia, Timoteo Ezpeleta.



Maxima Zubia. Martizen aratusteetan mozorrotuta. Bainuetxean ateratako argazkia. 1913. urte ingurua..

Aspaldikoak dira goian ditugun bi argazkiak. Urte sasoi honi dagozkionak baina mende hasierakoak. Santa Ageda mutilen eta aratusteen jatorria aspaldikoa den ezaugarri. Makina bat urtetan atzera joan beharra dago argazki horiek atera zireneko momentura iristeko, mende hasieratik bukaerara salto egin baitugu. Usadioak hortxe dirau baina gauzak aldatu egin direla ezin ukatu. Baina zeintzuk dira urte hauetan barrena izan diren aldaketak?

Argazkiko Santa Ageda mutilen garaian, Santa Ageda aurreko domekan egiten zen aurreneko plazako dantza saioa. Badirudi ez zuela horrenbesteko garrantzia, izan ere, kaleko jantzi arruntez dantza egiten zen eta ondorengo merixenda ere eskasa izaten zen.

Santa Ageda bezperan, kanpaiak jo ondoren bazkal ostean hasten zen baserririk-baserriko kantu eta eskea. Auzoetan, bertako taldea egoten zen eta horregatik, kaletarrei, elizaz herriarenak bakarrik ziren baserriak zegozkien.

Santa Ageda egunez, goizeko 6,30etan, meza entzun ondoren ekiten zitzaion aterik-ateko kantuari. Beti ere, urtebete barruan heriotzaren bat izan zen etxean, errezua ala kantua zer gurago zuten galdetuaz. Arratsaldean Santa Ageda mutilen auresku eta banako saioa iritsiko zen, baina txuriz eta gerriko gorritz jantzirik oraingo honetan. Eta oraingo moduan aratuste domekararte dantza egingo zen. Hala ere, bazegoen desberdintasun txiki bat, izan ere, neskak plazara atera aurretik etxeetara joaten ziren nesken bila. Gauza bitxia ezta? Orduan herria txikia zen eta neskak ere gutxiago izango ziren.

Aratusteei dagokionez, orain ez moduan, martizen aratustea izaten zen egunik garrantzitsuen. Herriko mutilek txino dantza egiten zuten, baina erdaraz. Egun osoan zehar danbolineruan soinuaz dantzan eta entresakak kantatuz aritzen ziren. Entresakak, herrian gertatutako gauza barregarriak kantatzeari deitzen zitzaion. Arratsalde-ilunkara parterako barrez, Xoxuena atartean dantzaldia egoten zen. **Haiek ziren garaiak haiek!** Martizen aratusteetan txerriaren koipeaz eginiko torradak jaten ziren garaiak.

Ai ama, hau panorama!



M.J. Aretxaga

Udaberria heltzeko dagoenean heldu zaigu hainbeste iragarritako edurra. Baina hala ta be, batek baino gehiagok susto galanta hartuko zuen martizen goizean herria txuri-txuri ikustean. Nik behintzat galanta hartu nuen, han fan nintzen botak jantzi eta lanera. **Ai ama, hau panorama!**

Izan ere, Almen ikastolako guraso eta irakasleek lan ugari egin ondoren izenburu horrekin antzestu zuten euren lana. Bertan atxabaltar askok parte hartu zuten. Aretxagazetako batzordekide ohiak, **Xabin Arriolak**, aldizkaria eszenatokiagatik aldatu du. Ia ospetsu egiten denean guri ematen digun "entrebistaren eskusiba". Berakin batera, **Martxi Perez**, **Miren Arenaza**, **Gemma Zubizarreta**, **Koldo Iriarte**, **Iñaki Madinabeitia** eta **Lurdes Kintanilla** atxabaltarrak aritu dira. Haez gain talde teknikoak ere

atxabaltar askok osatu dute. **Isidro Urkia**, **Maia Etxeberria** eta **Geme'sek**. Pozten naiz halako inizatibak sortzen direla ikusita.

Beste inizatiba xeble baten barri ere izan dut. Pedro Aranbarri "**Gorriña**" zenaren 1931an Aizkorriera eginiko fan-etorriko 7 ordutako marka hobetu guran dabilta atxabaltar batzuk. Abenduan egin zuten frogat bat, Urbixako joan-etorria egin zuten eta bokadilo eta beste betebeharrak batzuen, (auskalo zeintzuk) denbora kenduta bost ordu t'erdia tardatu zuten. Beraz, "Gorriña"ren marka hobetzeko gorriak ikusiko dituzte, oraindik berde samar daude eta.

Dana dala, udaberri aldera osterara be saiatuko dira ibilbide hori egiten eta akaso oraingoan marka hobetuko dute, bokadiloa jaten ez badute denbora gehiegi galtzen behintzat.

Marka ona egitea izango da beste bi atxabaltarren nahia. **Iosu Estevez** eta **Eneko Garai** dira Arrasaten sortu barri den txirrindulari taldearen zuzendariak. Taldean hiru txirrindulari atxabaltar daude, **Roberto Fraile**, **Iban Sastre**, eta **Jose Angel San Migel**.

Kontuz eta zaindu zuein buruak, holako egunetan pelota zuriak ez dira gozoak izaten eta.

A R E T X A Z O K A

- Valdezate taberna inguruan giltza batzuk galdu dira. Bizkaiko Foru Aldundia dioen naruzko giltzakoaz. Deitu 79 01 05 telefonora.

- Santa Ageda mutilen eta aratusteen bideo grabaketa erreportaiak salgai ditut. Interesatuta egon ezkerro edo informazio gehiagorako deitu konpromezu barik 79 78 37 telefonora.

- Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak, etxean grabatutako bideo muntaiak, etabarren bideo erreportai profesionalak egiten dira. Interesatuta egon ezkerro edo informazio gehiagorako deitu konpromezu barik 79 78 37 telefonora.

- Urtarrilaren 4an eskuz egindako larruzko poltsa bat desagertu zen. Aurkitu ezkerro deitu 79 05 26 telefonora. Eskerrik asko.

LANA

- Arrasaten euskerazko eta gaztelaniazko itzultzailea behar da. Tfnoa: 77 04 98
- Emakume euskalduna eskaintzen da ordu batzuk lan egiteko. Tfnoa: 79 43 63

- Lurra lixatu, barnizatu, (barniz ekologikoarekin) eta parketa, tarima jartzen ditut. Eskatu aurrekontua konpromezu barik. Telefonoa: 71 50 72

ETXEBIZITZA

- Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta jantzita dago. Gaez deitu ondorengo telefonora 71 40 47.

- 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kalerutza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

- Logela bat salgai dago. Erosi berria da. Bi ohe tolesgarri ditu, erropentzako bi armairu, eta espidodun apalategia. Armairuaren neurria, 3,46 metro zabaleran eta 2,4 metro altueran da. Harremantarako telefonoa: 79 57 07 da eta Pauligatik galdetu.

- Eskoriatzan jantzitako etxea alokatzen da. Telefonoa: 79 87 26.



Jasone Altuna

“Demetriok erakutsi zidan txistua jotzen”



Jasone herriko txistularia dugu. Urte dexente daramatza txistuari doinua ateratzen orain dela 15 urte hasi zen eta. “Solfeo ikasten hasi nintzen eta instrumentu bat aukeratzeko orduan txistua aukeratu nuen.”.

• Nola ikasi zenuen txistua jotzen?

Hasiera baten Demetriorekin ikasi nuen. Gero neure kasa ikasi dut gainontzeko guztia, liburuetatik, e.a.

• Ez zara aspertzen jai guztietan txistua jotzeaz?

Apur bat bai. Batzutan oso gustora aritzen naiz. Non eta zertarako jotzen duzun desberdina da, batzutan gustorago beste batzutan baino.

• Txistulari lanetan aritu zaren urte hauetan izango duzu anekdota bitxiarik kontatzeko...

Bai, gogoratzen dut urte batean erraldoiekin kalejiran gindoazela erraldoi bat jausi egin zen Santa Kurtz kalean.

• Txistulari barri asko daude?

Bai, bi neska eta hiru-lau mutil gazte daude.

• Zein musika mota gustatzen zaizu?

Denetarik gustatzen zait, modernoa gehienbat, euskal musika ere bai.

• Zeintzuk dira zure afizioak?

Musika entzutea, liburuak irakurtzea eta kalera urtetzea.

• Zein liburu komendatuko zeniguke?

Normalean erdaraz irakurtzen dut. Asko gustatu zitzaidan Lituma en los Andes, Mario Vargas Llosarena.

• Erropak erostera nora joaten zara?

Bilbora edo Gasteizera gehienetan. Hemen inguruan ere erosten ditut erropak.

• Telebisioko zein programa gustatzen zaizu?

Pelikulak gustatzen zaizkit gehien, baita dokumentalak ere.

• Beldurra zeri?

Bakardadeari.

• Zerk ematen dizu amorrua?

Aintzakotzat ez hartzeak, kasurik ez egiteak.

• Kirolrik egiten duzu?

Ez, pasioak.

• Mutilak, moreno ala rubioak gustatzen zaizkizu?

Morenoak.

• Zerk lotsarazten zaitu?

Aretxagazetan urtetzeak adibidez, txistua jotzen eszenatokira igotzeak ere bai.

• Gonak ala frakak gurago dituzu?

Frakak.

• Aurten edurra egitea gustatuko litzaizuke?

Bai, edurra kalean ikustea gustatuko litzaidake.



Beheko laukian, Aretxabaletan azpian dauden berbak zelan esaten diren aurkitu beharko duzu:


- 1.- OMEN - E...
- 2.- BERAIEK - E...
- 3.- BEZALA - M...
- 4.- JOAN - F...
- 5.- OSTIRALA - E...
- 6.- GOSALDU - A...

K	A	R	U	E	R	L	O	F	E	A	G
T	U	E	S	I	G	N	U	D	T	I	K
I	X	A	I	U	E	R	F	X	I	E	T
B	M	A	R	N	F	N	I	A	U	G	R
F	A	R	M	O	Z	A	T	U	A	U	O
R	A	Z	M	T	R	F	O	G	M	A	A
L	Z	X	O	R	O	R	D	L	K	K	M
K	A	U	A	T	R	A	L	A	G	O	G
A	R	R	E	O	S	E	K	A	D	T	O
F	A	N	L	I	E	U	O	U	Z	X	K
N	A	U	M	Z	A	R	A	N	R	A	R
I	M	I	L	E	G	N	R	K	G	R	A

GURUTZEGRAMA

Itxeko atala	Nahia, gertopas	Musika mota	1.993 gero	Potasioa
Bulego	Lotako burak	Garratzeza	Leizoiako hiribitua	hiritan itxeko harana
Lokurti katea				Biharlekuaren ondoko eguncan
Laganik gabek		Juleko behar		
		Salmenin mota		
Belardia			T bustia	
Gizon izena			Norbaiti	
			Joan dan atean	
			Bai	
Etze				Iodoa
Gizagaitza				Etaki sakonak
			Ostiaoa	Txori mota
			Bizkarrezu-erako atal	
Len	Bokina	Janizi mota		
	Kutsu	Jarri		
			Kirikano, sagarri	
			Birrez	
Röntgen	Halei, zuen			Erreme
Frutu mota	Biba!			(Errep.) Frutu mota
			Txori mota	
			Kasik	
Kolore mota			Ale landac	
Uki-mendiak			Suari dato	
				Atz!
				Azkencokos
Nago			ibai nafarra	

BERGARA



Otsailak 13-25

ARGAZKI ERAKUSKETA

Hirugarren munduarekin solidaritatea erakusten duten argazki erakusketa izango da ikusgai kultur etxean, **Muga gainerik eta Komite Internazionalistek** antolatuta.

Otsailak 27tik martxoak 10era

ERAKUSKETA

Nekazaritzako tresneriak eta makinaria miniaturan. **Jose Tejada Navaroren** eskutik. Kultur etxean egongo da ikusgai.

OÑATI



Otsailak 27

HITZALDIA ETA DIAPOSITIBA EMANALDIA

"Nieve y abalanchas prevención y salvamento" gaiari buruzko hitzaldia eta diapositiba emanaldia emango du **Anton Murciok**. Kultur etxean izango da arratsaldeko 7,30etan.

Martxoak 9 zapatua

ANTZERKIA

"Denak errudun" antzezlanaren antzeztuko du **Tantitaka** taldeak gaueko 10,30etan Sata Ana antzokian.

ARRASATE



Otsailak 24

ANTZERKI EMANALDIA

Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian **Orain** antzerki taldearen "**Besarka gaitzen Folleville**" emanaldia. Sarrera 800 pezeta, gazte txartelarekin 600 pezeta.

Otsailak 27tik martxoak 6ra

ERAKUSKETA

Aratusteak 96 argazki lehiaketaren erakusketa, Monterron kultur etxean.

Otsailak 16tik martxoak 15era

ERAKUSKETA

"Arkitekturak Arrasaten" erakusketa ikusgai egongo da Harresi Aretoan.

Martxoak 1 eguakotxa

MITIN JAIALDIA AMAIA ANTZOKIAN

Txomin Iturberen omenez, HBk mitin jaialdia antolatu du Amaia Antzokian gaueko 10etan.

Martxoak 2 zapatua

KONTZERTUA

Arrasate musikalek antolatuta, **Goikobalu eta Arrasate musikaleko kamara orkestrak** kontzertua eskainiko dute Amaia Antzokian arratsaldeko 8etan.

Martxoak 7 eguena

ZINEA

Gaueko 9,30etan Amaia Antzokian "**Entre rojas**" filmea egongo da ikusgai.



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86


ARETXABALETA

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozategia
Panaderia - Pasteleria*



Aretxabaleta

Abilurte 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

Orador Propio

MENDIOLA

ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45

ESKORIATZA



BEHARREZKO
TELEFONOAK

Martxoak 3 domeka

ZARAIA M.T.aren URTEERA
ZARAIA M.T. Arrietara egingo du
urteera.

HAUTESKUNDE OROKORRAK

Otsailak 20 martxoak 1

TANZANIARI BURUZKO ARGAZKI
ERAKUSKETA

Otsailaren 20tik martxoaren 1era
bitartean **Tanzaniari buruzko
erakusketa** egongo da udaletxeko
ganbaran arratsaldeko 6,30etatik
8,30ak bitartean. **Patxi Sanchez
Dehesaren** eskutik.

Otsailak 23 eguakotxa

ZUHAITZEN LANDAKETA URKULUN

BEDEREN BAT ANTZERKI TALDEA
BEDEREN BAT antzerki taldeak "Zu (t)
gabe" antzezlanaren antzeztuko du
Zaraia zinemaren gaueko 10,30etan.
Sarrera 500 pezeta.

Otsailak 24 zapatua

DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI
ESKOLAREN AURKEZPENA

LORAMENDI ELKARTEAK MINTEGIA
Arratsaldeko 4retan ekinda
Loramendi Elkartearen mintegia.

Otsailak 26 astelehena

ZUHAITZEN LANDAKETA URKULUN

Otsailak 26 eta 27

FORUMak

Almeneko gurasoentzat
zuzendutako Forumak izango dira
Almenen. **Komunikazioa, pertsona
autonomoa** izatera iristeko oinarria
den **AHALEGINERAKO MOTIBAPENA**
ren inguruan. Hlzlaria, **Juan Carlos
Torre** eta gaien adituak diren beste
batzuk zuzenduta.

Martxoak 4 astelehena

KERAMIKA IKASTAROAREN HASIERA

Keramikako ikastaroa hasiko da
martxoaren 4an. Ikastaroa oinarritik
hasiko da. Arratsaldeko 6,30etan
izango da kultur etxean eta oraindik
ere apuntatu gura izan ezkerok kultur
etxean egin daiteke edo eta
79 01 05 telefonora deituz.

Martxoak 6 eguaztena

BARRUKO LANDAREEN INGURUKO
HITZALDIA

LORAMENDIKO TRIL emakume
taldeak, BARRUKO LANDAREEN
inguruko hiltzaldia antolatu du.
Jakoba Rekondok emango du eta
arratsaldeko 3,30etan izango da
Loramendiko lokallean.

Martxoak 8 eguakotxa

SAGARDOTEGIRA URTEERA

Emakumearen eguna ospatzen da
martxoaren 8an. Hori dela eta, **Tril
emakume taldeak** **Ataungo
Urbite sagardotegira** urteera
antolatu du. Ilunkaran izango da
urteera baina afal aurretik **sagardoa
zelan egiten den** ikusi ahal izango
da. Izena emateko Loramendiko
lokalera jo.

AEKko mariskadaren zozketako
zenbakia **2.641** da. Zenbaki hau euki
ezkerok, Arrasateko euskaltegira jo.
Telefonoa: 77 03 69

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarteak 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO



Basabe Poligonoa A-15
79 34 28
ARETXABALETAKO

ITURGINTZA




Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



MUGARRI

Courier-Escort-Fiesta-Galaxy-Maverick-Mondeo-Scorpio-Transit

Lehenak



gara

ZUEI ESKER

MUGARRI, DEBA GARAIKO FORD BANATZAILEA:
Gatzaga-Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate-Bergara-Elgeta-Oñati

1995eko liderra

Gure helburua zuei atsegin osoa ematea da
Arretan ere lider izan nahi dugu



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tfnoa: 79 07 44-54 Faxe: 79 62 54